

BANDOA

Koronabirusa ez zabaltzeko prebentzio neurriak

Atzo jakinarazi zuen Eusko Jaurlaritzak: gaurtik (martxoak 13) itxita egongo dira eskolak, haurtzaindegiak eta ikastetxeak, hamabost egunez. Jaurlaritzak hartutako erabakiaren aurrean, koherentziaz jokatzera erabaki du Itsasondoko Udalak. Ondorioz, ondorengo zerbitzuak itxita egongo dira gaurtik eta jakinarazpen berri bat jaso bitartean:

- Liburutegia.
- Haur txokoa.
- Gaztelekua.
- Musika eskola.
- Jubilatuen elkarteak.

Era berean, datozen asteetarako iragarrita zeuden ekintza guztiak bertan behera geratuko dira, oraingoz:

- Soinketa eta Tipi Tapa.
- Yoga.
- Pilates.
- Eskola kirola.

Arbelaitz elkarteak, herriko tabernetan zein herriko beste eremuetan jende pilaketak saihestea gomendatzen da.

Udaleko administrazioko zerbitzuak eta medikua martxan izango dira, oraingoz, baina betiere langileek kutsadurak saihesteko neurriak hartuko dituzte. Herritarrei aholkatzen zaie aurrez aurreko harremana saihestea, eta telefono bidezko harremana lehenestea, ahal den neurrian.

Herritarrei arduraz jokatzeko eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Siletik emandako gomendioei kasu egiteko gomendioa ematen diegu.